



AGINDUA, BIGARREN LEHENDAKARIORDE ETA EKONOMIA, LAN ETA ENPLEGUKO SAILBURUARENA, ZEINAREN BIDEZ ONETSI BAITA, ALDEZ AURRETIK, DIRU-SARRERAK BERMATZEKO ERRENTAREN ETA GIZARTE-LARRIALDIETARAKO LAGUNTZEN ONURADUNEI APLIKATZEKO ENPLEGU-PIZGARRIAK ARAUTZEN DITUEN DEKRETU-PROIEKTUA.

Bigarren lehendakariorde eta Lan eta Enplegu sailburuaren 2024ko urtarrilaren 9ko Aginduaren bidez, Diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta gizarte-larrialdietarako laguntzen onuradunei aplikatzeko enplegu-pizgarriak arautzen dituen dekretu-proiektua prestatzeko prozedura abiarazteko agindu da.

Honako hau xedatzen da Xedapen Orokorrek egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 15.1 artikuluan: *“xedapen orokorren proiektuak idatzitakoan, prozedura hasteko agindua eman duen organoak alde zuzeneko onarpena eman beharko dio dena delako testu artikulatuari, dagozkion negoziazio-, entzunaldi- eta kontsulta-izapideak egin aurretik”*.

Adierazitakoa dela-eta, behin dekretuaren proiektuaren testua idatzita, prozedura abiarazi duen aginduan ezarritako xedearen arabera, bidezkoa da hari aurretiazko onarpena ematea, egin beharreko izapideak egin baino lehen. Horregatik guztiatik,

HONAKO HAU EBAZTEN DUT:

Lehenengoa. - Aurrez onestea Diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta gizarte-larrialdietarako laguntzen onuradunei aplikatzeko enplegu-pizgarriak arautzen dituen dekretu-proiektuaren testua.

Bigarrena. - Araua egiteko prozedurak jarrai dezala xedatzea, horretarako behar diren instrukzio-egintzak egiteko aginduz, prozedura hasteko 2023ko uztailaren 20ko Aginduan eta Xedapen Orokorrek Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legean azaldutako premisekin bat etorritz.

Vitoria-Gasteiz,

Bigarren lehendakariorde eta Ekonomia, Lan eta Enplegu sailburua

MIGUEL TORRES LORENZO





DEKRETUA, 2024koren(e)koa, diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta gizarte-larrialdietarako laguntzen onuradunei aplikatzeko enplegu-pizgarriak arautzen dituena.

Errenta bermatuen euskal sistemak, sortu zenez geroztik, aurreikusita dauka norberaren lanetik edo norberaren konturako jarduera ekonomikotik datozen diru-sarrera batzuk ez zenbatzeko aukera, saihesti egin nahi baita prestazioa eragozpen izatea enplegua lortzeko eta enplegua izaten jarraitzeko. Aurreikuspen hori, ondoko lege-testuetan errepikatua, erregelamenduz garatu zen, azkenik Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzako sailburuaren 2001eko otsailaren 14ko Aginduaren bidez; agindu horrek lanean hasteko pizgarriak ezarri zituen oinarritzko errentaren titularrentzat eta gizarte-larrialdietarako laguntzen onuradunentzat.

Hura onartu zenetik hogeitau urte baino gehiago igaro direla, beharrezkoa da haren edukia berrikustea eta eguneratzea, kontuan hartuta batetik, aldi horretan gertatu diren aldaketa normatiboak, ekonomikoak eta sozialak, eta, bestetik, Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren ebaluazio-txostenetan jasotako ebidentziak. Horietan, frogatuta geratu da ereduak arrakasta izan duela, erakutsi baitu onuragarria izan dela, bai enplegurako bidean egoteko probabilitateari begiratuta, bai lortzen den enpleguaren kalitateari begiratuta. Aldi berean, hobetu beharreko eremu batzuk ere detektatu dira, eta horien artean nabarmentzekoak dira pizgarriak indibidualizatzeko formulak garatzea, familia-egituren bilakaera kontuan hartzea —guraso bakarreko familien egoera, bereziki—, eta, sistema hobeto ulertaraztea.

Araudiari dagokionez, Inklusiorako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemari buruzko abenduaren 22ko 14/2022 Legeak 40. artikuluan jasotzen du, aurreko legeek egin zuten bezala, aukera ematea —erregelamenduz ezarriko diren mugekin— bateragarri izan daitezen batetik, diru-sarrerak bermatzeko errentaren prestazioaren aitortza, eta, bestetik, prestazioaren eskatzaileek eta onuradunek norberaren konturako jarduera ekonomikotik edo lanetik lortzen dituzten errentak, nahiz eta errotik aldatzen duen pizgarri horiek ulertzeko modua, ezartzen baitu pizgarri horien aplikazioa mugagabea izango dela; horrela, pizgarriok aldi baterakoak izateari utzita, lan-merkatuan irauteko zegoen oztopoa kendu du.

Lan-errentatik datozen diru-sarrerei tratamendu berezia ezartzea justifikatzeko, badira bi arrazoi, gutxienez. Lehenengoa: luze dirauen fenomeno bati heldu beharra, zeina baita diru-sarrera txikiak izateagatik pobrezia muga gainditzea lortzen ez duten pertsona landunen egoera. Bigarrena: enplegua lortzeko dagoen oztopo jakin bat gainditu beharra, zeina baita lanetik datozen diru-sarrerak handitu ahala prestazioa proportzioan murriztea.

Dekretu honetan arautzen den bateragarritasun-eredu berriak helburu nagusi hauek ditu: a) diru-sarrera apalak dituzten langileei laguntzeko politikarekin jarraitzea eta politika hori hori familia handiei dagokionez hobetzea, ereduaren estaldura handituz; b) diru-pizgarrien ardatzean egotea enpleguan parte hartu edo ez norberak erabakitzea eta lan egiteko ordu-kopurua norberak aukeratzea; c) genero-ikuspegia ezartzea, bikoteetako bigarren kideek —gehienetan emakumeak— enpleguan parte hartzeko pizgarrien bidez eta guraso bakarreko familiak —gehienetan emakumeak direla buru— lan-merkatuan sartzeko laguntza ekonomikoa emanez, eta d) sarbiderik ezaren egoerak murrizten laguntzea, bateragarritasun-ereduaren gardentasuna eta ulergarritasuna areagotuz.

Helburu horiek direla-eta, bateragarritasun-eredu berria hobari orokor baten inguruan antolatzen da. Hobari hori ehuneko bat da, bizikidetzaren unitateak lanetik lortzen dituen diru-sarreraren gainekoa, eta horri hobari indibidual bat gehitzen zaio, zenbateko finkoa duena. Hobari indibidual horren zenbatekoa desberdina izango da pertsonaren lan-intentsitatearen arabera. Horren osagarri, guraso bakarreko familien kasuan, hobari bat ezartzen da, hau ere zenbateko finkokoa, seme-alaben hazierarekin lotuta dagoen aukera-kostua dela-eta. Hobari horien guztien baturak zehaztuko du zer laneko diru-sarrera ez diren zenbatuko diru-sarrerak bermatzeko errentaren zenbatekoa kalkulatzeko.

Diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta laneko errentatik edo jarduera ekonomikotik datozen diru-sarreraren bateragarritasuna —dekretu honetan ezarritako terminoen arabera— nola aplikatzen



den ikusteko, jarraipena eta aldizkako ebaluazioa egingo dira, eta horren emaitzak aipatutako hobarien zenbatekoak aldatzea ekar dezake, hala badagokio.

Azaldutakoaren arabera, Ekonomia, Lan eta Enpleguko sailburuak proposatuta, Gobernu Kontseiluak 2024koren(e)an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hau

XEDATZEN DUT:

1. artikulua. - Xedea.

Dekretu honen xedea da Inklusiorako eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren araudian jasotako enplegu-pizgarriak nola aplikatu arautzea. Neurri horrek ahalbidetzen du diru-sarrerak bermatzeko errentaren prestazioa eta gizarte-larrialdietarako laguntzen prestazioa bateragarriak izatea prestazio horien eskatzaile eta onuradunek norberaren konturako lanetik edo jarduera ekonomikotik lortzen dituzten errentekin.

Horretarako, zenbateko jakin batzuk deskontatu egiten dira norberaren edo besteren konturako lanetik datozen diru-sarreraren zenbaketan, dekretu honetan ezartzen diren balditzetan eta moduan.

2. artikulua.- Kanpo utzitako diru-sarreraren zenbatekoa.

Norberaren edo besteren konturako lanetik datozen diru-sarrerak lortzen diren hilean, diru-zenbateko bat deskontatutako da horietatik, eta zenbateko hori formula honen arabera zehaztuko da:

Deskontatu beharreko zenbatekoa=hobari orokorra+hobari pertsonala + seme-alaben hazieragatiko kostuaren hobaria

Hau da:

– Hobari orokorra: bizikidetzaren unitatean, norberaren edo besteren konturako lanetik datozen hileko diru-sarrera propioen % 20.

Ondore horietarako, laneko diru-sarrera propiotzat hartuko dira norberaren edo inoren konturako lanetik datozen guztirako diru-sarrerak, Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren Erregelamendua onartzen duen azaroaren 21eko 173/2023 Dekretuaren 37. eta 38. artikuluetan ezarritakoarekin bat etorritik.

– Hobari pertsonala: diru-sarrerak bermatzeko errentaren oinarritzko zenbatekoaren % 12 edo % 22, bizikidetzaren unitateko langile bakoitzaren lan-intentsitatearen arabera, hurrenez hurren, lan-intentsitatea txikia edo handia izatearen arabera.

Pertsona batek lan-intentsitate txikia duela joko da baldin eta norberaren edo inoren konturako lanetik datozen diru-sarrerak lortu ziren hilean Gizarte Segurantzako edozein erregimenetan 20 egun oso baino gutxiago alta emanda egon bada; lan-intentsitate handia duela, berriz, hil horretan 20 egun osoz edo gehiagoz alta emanda egon bada.

Alta emanda egondako egun osoak zenbat diren kalkulatzeko, denbora partzalean lan egindako egunak lanaldi horrek lanaldi osoarekiko erakusten duen ehunekoaren arabera zenbatuko dira.

- Seme-alaben hazieragatiko kostuaren hobaria: diru-sarrerak bermatzeko errentaren oinarritzko zenbatekoaren % 25; hori deskontu osagarri gisa aplikatuko zaie hamalau urtetik beherako umeak dituzten guraso bakarreko bizikidetzaren unitateei, 14/2022 Legearen 34.3 artikuluan ezarritakoaren arabera eratuta daudenei.

Xedapen gehigarri bakarra.



Bateragarritasun-eredu berriaren funtzionamenduari diseinu-, funtzionamendu- eta emaitza-ebaluazio bat egingo zaio, antzeko helburuak dituzten beste politika publiko batzuekin duen elkarreragina kontuan hartuta. Ebaluazioan, ereduaren funtzionamendua hobetzeko gomendioak jasoko dira. Ebaluazioa Enplegu- eta inklusio-politikak ebaluatzeko organoak egingo du, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak ere parte hartuko duela.

Xedapen iragankor bakarra.

Dekretu hau indarrean sartu baino lehen hasitako prozedurak, diru-sarrerak bermatzeko errentaren prestazioari buruzkoak —dela prestazioa aitortzeko, dela hura berriz jasotzeko, dela haren diru-zenbatekoa eguneratzeko—, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzako sailburuaren 2001eko otsailaren 14ko Aginduaren xedatuaren arabera ebatziko dira; agindu horrek lanean hasteko pizgarriak ezarri zituen oinarrizko errentaren titularrentzat eta gizarte-larrialdietarako laguntzen onuradunentzat.

Dekretu hau indarrean sartu baino lehen hasitako prozedurak, gizarte-larrialdietarako laguntzak emateari buruzkoak, berorren arabera ebatziko dira.

Xedapen indargabetzaile bakarra.

Indargabetuta geratzen da Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzako sailburuaren 2001eko otsailaren 14ko Agindua, lanean hasteko pizgarriak ezarri zituen oinarrizko errentaren titularrentzat eta gizarte-larrialdietarako laguntzen onuradunentzat.

Azken xedapenak.

Lehenengoa. Garapena.

Eusko Jaurlaritzan diru-sarrerak bermatzearen alorrean eskudun den sailburuari ahalmena ematen zaio 2.1 artikulua aldatzeko, ehunekoen balioari eta lan-intentsitatearen maila zehazteko kontutan hartu beharreko egun-kopuruari dagokienez.

Bigarrena. Indarrean sartzea.

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2024koko(e)an.

Lehendakaria,
IMANOL PRADALES GIL.

Jaurlaritzako bigarren lehendakariorde eta Ekonomia, Lan eta Enpleguko sailburua,
MIGUEL TORRES LORENZO.